



EROSKI
FUNDAZIOA

zurekin



ELIKADURA
ESKOLA

Prensa oharra

EROSKI FUNDAZIOAK "ELIKADURA ETA OHITURA OSASUNGARRIEI BURUZKO HEZIKETA PROGRAMA" BERRITUA ATERA DU, FORMATU DIGITAL BIHURTUA COVID-19A DELA ETA

- **Aurten eskaintza zabaldu du Haur Hezkuntzako ikasleetara beren mailara egokitutako ipuinekin eta jarduerekin**
- **Ikastetxeetarako prestatuta daude edukiak, eta aurten moduluak ere izango dira familientzat**
- **"Ikasgelako chefa" tailer arrakastatsuak bertsio berria izango du formatu digitalean Basque Culinary Centerren laguntzarekin**
- **EROSKI Fundazioaren *Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programak* aitortza ugari jaso ditu; besteak beste, Haur Komunikazioaren Nazioarteko Jaialdiaren "El Chupete" saria eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak ematen duen NAOS saria**

Elorrio, 2020ko urriaren 15a.- [EROSKI Fundazioak](#), Elikadura Eskolaren bitartez, martxan jarri du, egun hauetan, *Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko IX. Heziketa Programa*. Programa berritua dakar, formatu digitalean, pandemia dela-eta edukiak eskura izateko.

Ikastetxeen eskura ohi bezala materiala jartzeaz gain, aldi honetan heziketa programak sarbidea emango die familiei ere EROSKI Cluben "Familia Plana"-ren bitartez; hala, haiek ere eskura izango dituzte edukiak. Bestalde, 2020-2021eko heziketa programan interesatuta dauden ikastetxeek izena eman dezakete, www.escueladealimentacion.es webgunean.

"Gure heziketa programaren helburua zera da, haurrak eta haien ingurunea sentsibilizatzea elikadura orekatua eramatearen eta ohitura osasungarriak hartzearen garrantziaz; xedea da haur gizentasunaren tasa gero eta goragoari galga jartzea. Proposamen honen bitartez, osasuntsu jaten eta hazten erakusten zaie, eta aurten berriz aurkeztuko dugu berritasun batzuekin; izan ere, COVID-19a dela eta, egokitu egin behar izan dugu. Horrek, gainera, agerian jarri du, hain justu, ohitura osasungarriak izatearen garrantzia", adierazi du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Beste berrietasun bat ere badakar aurtengo ikasturteak; izan ere, edukiak ez dira bakarrik Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (6-12 urte) orain arte bezala, orobat dira Espainian Haur Hezkuntza duten ikastetxe guztietako ikasleentzat ere (3-6 urte). Guztiek ere eskura izango dituzte ipuinak, jarduera esperimentalak eta sentsorialak, ikasgelarako jokoak eta familiak jokatzeko modukoak eta maila horietarako espezifikoki diseinaturiko komikiak.

Programaren gaur egungo edukiekin, asmoa da ikaslea oinarrizko zenbait elementurekin jabetu dadila elikadura orekatu bat eramateaz, ohitura osasungarriez, tokiko produktuen garrantziaz, mundu osoko kulturetako dietez eta planetaren jasangarritasunaz. Horretaz gainera, joko interaktibo bat ere badakar aurren, elikadura orekatua sustatzeko bere erronkekin eta sariekin eta zailtasun mailak urte tarte hauetara egokituta: 6-8 urte, 8-10 urte eta 10-12 urte.

EROSKIren Elikadura Eskolaren kolaboratzaileak dira Unicef, WWF eta Bihotzenaren Espainiako Fundazioa, eta programako edukien zati bat zehazten lagundu dute. Bestalde, ["Ikasgelako chefa"](#) tailerraren bertsio digital bat prestatzen ari dira; tailer horren bitartez asteko menu osasungarri bat prestatzen erakusten da, [Basque Culinary Centerren](#) laguntzarekin.

Heziketa programa —dagoeneko milioi bat ikasle baino gehiago izan dituen 2012an martxan jarri zenetik— EROSKIren [Osasunaren eta Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa](#) barnean sartzen da, haur gizentasunari aurre hartzeaz denaz bezainbatean. Batzorde zientifiko batek prestatu du programa, arlo askotako profesionalek osatua: medikuntza eta pediatria, nutrizioa eta dietetika, psikopedagogia eta pedagogia. *"Urtez urte, programa bizkortzen eta hobetzen ari da bertan parte hartu duten irakasleen balorazioei eta ekarpenei esker"*, azaldu du EROSKI Fundazioko zuzendariak.

Aitorpena, ohitura osasungarriak sustatzeagatik

EROSKI Fundazioak elikadura osasungarriagoa sustatzeko sortu duen heziketa programak aitorpen ugari izan ditu. Besteak beste, ["El Chupete" saria](#), Haur Komunikazioaren Nazioarteko Jaialdian emana, adingabeekin landutako komunikazioa aitortzeko; [NAOS saria](#), Osasun eta Kontsumo Ministerioak emana, kontsumitzaileen osasunerako egindako ekarpenagatik eta ohitura osasungarriak hedatzeagatik; Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren [Gosasun Zigilua](#); [Herriarren Saria](#) Osasunaren eta Bizi Kalitatearen arloan; [Nutrizioaren Kataluniako Zentroaren Saria](#); eta [OCARE saria](#), "GEKeko Komunikazio Kanpaina onena gizarte zibilarekin".

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)